Hondarribiko
Udala

**Esp. Kod./Cód. Expte.:** 2021ES020003
**Erref./Ref.:** K.G

**/2021 DEKRETU ZK.**

**TALAIA HONDARRIBIKO ESKOLARI, Bertsolaritza eta ahozkotasuna proiektua** antolatzeagatik, dirulaguntza izenduna ematea. Dirulaguntza hori Hondarribiko Udalaren 2021 aurrekontuan eta 2020-2023 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasota dago.

**TALAIA HONDARRIBIKO ESKOLAK, Bertsolaritza eta ahozkotasuna proeiktua** antolatzeagatik, ondoren zehazten den dokumentazioa aurkeztu du:

- Diru-laguntza eskaera normalizatua.
- Identifikazio Fiskaleko Kodearen kopia.
- Gizarte Segurantzako ordainketak egunean dituelako agiria.
- Ogasun ordainketak egunean dituelako agiria.
- Kontuaren titularitatea egiaztatzen duen agiria.
- Proiektua azaltzen duen informazio orokorra.
- Ekintzari dagokion aurrekontu zehaztua (gastuak eta sarrerak).
- Beste diru-laguntzetarako eskabideei buruzko aitorpena.

Idazkaritzak emandako aldeko txostena ikusirik eta era berean Kontuhartzailetzak aurrekontu kontsignazioa badagoela dioen emandako eginbidea ikusirik,

**Alkatetza-Lehendakaritza honek, EBAZTEN DU:**

**Lehenengo**.- Bertsozaletasuna eta ahozkotasuna proiektua antolatzeagatik, zuritu beharreko, **4.610,38 €ko** diru-laguntza izenduna ematea.

**Bigarren**.- Hondarribiko Udalaren eta Talaia Eskolaren arteko lankidetza hitzarmena sinatzea.

**Hirugarren**.- Diru-laguntza, ondoan zehazten diren epeetan ordainduko da:

1. % 100,00 (**4.610,38 €**), proiektua gauzatu eta **Talaia Eskolak** hitzarmenean zehaztutako dokumentazioa aurkeztu beharko du, bertan zehaztutako epearen

Hondarribiko
Udala

barruan.

**Laugarren**.- Diru-laguntzaren gastua, AD 1726/21 erabiliaren kargura izango da.

**Elektronikoki sinatutako agiria**

**ALKATEA**

TXOMIN SAGARZAZU (R:
P2003700H)
2021.06.24 16:27:24 +02'00'